




Langileen babesa, blitz eta Churchillen aurka



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Londres, 1940ko irailaren 7a. Hegazkin alemaniarrek hiria bonbardatu zuten, Britainiar Uharteen eraso masiboa abiatuta. Edo, bestela esanda, *blitz*-a hasi zen. 1941eko maiatzera arte luzatu zen eta, amaitu zenean, britainiar lehen ministro Winston Churchillek “su artean denok elkarrekin aurrera egin” izana jo zuen erresistentziaren gakotzat. Eta *blitz*-aren aurkako erresistentzia eta elkartasunaren sinbolo nagusietakoa Londreseko metroko tuneletan babestu ziren herritarren argazkiak dira.

Baina argazki horiek ez ziren egin Churchillren gobernuari esker. Alderantziz, britainiar gobernuaren debekuaren aurka, langileek egindako ahaleginak ahalbidetu zuen irudia.

Irailaren 7ko gauean bertan, bonbardeketez gehien kaltetu zituzten eremuak East Endeko langile auzuneak izan ziren, hiriko gune industrial nagusia jomuga baitzuten erasoek.

Auzo aberatsak babeslekuz ondo hornituta zeuden, baina East Enden ez zegoen bunker nahikorik bertako biztanleentzat. Eta gobernuak herritarrei metroko tuneletan babestea debekatu zien, sarbideak itxita. East Endeko langile mugimenduko kideek –nagusiki, alderdi komunistako militanteek– kanpaina bat abiatu zuten orduan, metroko atea irekitzeko eskatzen. 100.000 eskuorri banatu zituzten, 5.000 kartel jarri... baina, gobernuak entzungor jarraitzen zuenez, ekintza deigarriago bat egitea erabaki zuten. Irailaren 14an, 100 bat lagunek Sa-



voy hotelaren babeslekua okupatu zuten, erdigune aberatsaren bihotzean.

“Egoera muturrera eramatea erabaki genuen” kontatuko zuen gero Phil Piratin ekintzaile komunistak. “Polizia etorri zenean han zer egiten genuen galdetu ziguten; ez zegokigun toki bat hartzen ari ginen. Erantzun genien ez genuela hor egon nahi, metroko atea irekitzea nahi genuela”.

Ekintzak oihartzuna lortu zuen behintzat. “East Endeko langileek Savoy inbaditu dute zioen prentsako titular batek, *blitz* betean langileak inbaditzailatzat jotzeko inolako lotsarik gabe. “Pribilegioak eskatzen dituzte Londresko luxuzko ho-

telean”, gaineratzen zuen artikuluak.

Ateek itxita jarraitzen zutenenez, East Endeko biztanleen artean metroko atee-tara hurbiltzeko deia zabaldu zuten orduan. Gobernuak soldaduak bidali zituen atea babesteko, baina geroz eta jendetza handiagoa bildu zen, burdin-hesiei bultzaka hasi ziren eta, presioa jasanezina bihurtu zenean, orduan bai, gobernuak amore eman eta herritarrei gauez metroan babesteko aukera eman zien.

Gatazka hori langileek irabazi zuten eta metroko argazki ezagunak langileen elkartasunaren sinbolo izan beharko lukete. Baina domina hori ere Churchillek bere paparrean zintzilikatu zuen. ●



Apoak klima aldaketaren seinale

Vichamako (Peru) aztarnategian, arkeologoek 3.800 urte inguruko estatuatxo berezi bat aurkitu berri dute. Caral zibilizazioaren azken arokoa da, eta bi apo irudikatzen ditu. Aztarnategi bereko hainbat hormairuditan gosetea, lehortea eta, finen, ingurumen krisiari lotutako irudiak

ere margotu zituzten. Andetar kulturetan apoia euriaren, uraren eta bizitzaren eraberritzarean sinbolo izanik, arkeologoek uste dute aurkitu berri duten apo pareak duela 4.000 urte eskas inguru haietan gertatutako klima aldaketaren hipotesia baieztatzen laguntzen duela. ●